




SENTIMENDU EKONOMIKOA

Sentimendu ekonomikoak gora egin du abuztuan eta batez besteko historikora hurbildu da

SENTIMENDU EKONOMIKOA.
EUROGUNEA

2026KO ABUZTUA

98,4



Europako Batzordearen sentimendu ekonomikoaren adierazleak gora egin zuen abuztuan, laugarren hilabetez jarraian, bai eurogunean, bai Europar Batasunean. Indizeak 1,3 puntu egin zuen gora euroaren eremuan, 98,4raino, eta 1,0 puntu EBn, 98,2raino. Aldeko ibilbide hori gorabehera, bi balioak 100etik pixka bat beherago geratu ziren, hau da, batez besteko historikoa.


Aurrerapena industrian, zerbitzuetan eta txikiz-

kako merkataritzan konfiantza handiagoa izatean oinarritu zen. Hobekuntza handiena zerbitzuei egokitu zitzairen, jardueraren, oraintsuko eskariaren eta aurreikuspenen balorazio hobekoagatik. Industriak gora egin zuen produkzio itxaropen positiboagoei eta izakinen murrizketari esker; txikizkako merkataritzan, berriz, enpresen aurreikuspenak hobetu ziren bereziki. Aldiz, kontsumitzaileen konfiantza eta eraikuntza ez zen ia aldatu uztailarekin alderatuta.


SENTIMENDU EKONOMIKOA.
EUROPAR BATASUNA

2026KO ABUZTUA

98,2




SENTIMENDU EKONOMIKOA. ALEMANIA



Goranzko joera hori Europako ekonomia nagusi-en artean zabaldu zen. Frantziak izan zuen hazkunderik handiena, 2,3 puntukoa; ondoren Alemaniak, 1,3 puntukoa, eta Italiak, zortzi hamarrenkoa. Alemanian eta Frantzian bereziki hobetu zen industriaren konfiantza, baina Alemaniak bere batez besteko historikoaren azpitik jarraitu zuen argi eta garbi, eta Italiak, berriz, 100 puntutik gora. Espainia joera horretatik aldentu zen, 2,2 puntuko jaitsierarekin, batez ere eraikuntzaren eta, neurri txikiagoan, industriaren narriaduraren ondorioz. Hala ere, 100etik


SENTIMENDU EKONOMIKOA. FRANTZIA




gora mantendu zen, eta eurogunea eta Europar Batasuna baino posizio hobean.

Enplegu aurreikuspenek ere bilakaera positiboa izan zuten abuztuan. Adierazlea 1,2 puntu igo zen EBn, 99,0raino, eta 1,5 puntu euroaren eremuan, 98,9raino; beraz, biak 100eko batez besteko historikora hurbildu ziren. Espainian, pixka bat murriztu den arren (109,2), maila horretatik oso gora mantendu da, eta horrek erakusten du oraindik ere aldeko kontratazio aurreikuspenak daudela historikoki.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. ITALIA



SENTIMENDU EKONOMIKOA. ESPAINIA



Iturria: Europar Batzordea.